

la bendicion de sus hijos,
hinca en tierra la rodilla,
su boca inocente y pura,
á la Virgen sin mancilla
de una plegaria sencilla
la hermosa frase murmura;
volviendo á Dios la mirada,
llena de paz y consuelo

al ver la tierra adorada
bendice la venerada
ermita que se alza al cielo,
y cuando la dicha alcanza
que su solo ensueño fué
otra vez al mar se lanza
en alas de la esperanza
y en los brazos de la fé.

ALVARO DE ANSORENA.

SECCION AMENA

ESAERAK .

EGUZKIA.

—Arratsalde on, On Prantzisku.

—Baita beorriyere, andre Kalaliñ.

—¿Piškor dabill?

—Bai, bai, Jaungoikoari eskerrak. Eskuiko belaunian nekarren aizia chingoka ibilli azirik, jua zitzairan ezkerreko besora, gero emendik jarri zitzairan bizkarrían, emendik pasa zan eskuiko oñera, oñetik gerrira, ta orla bulietan bezela gorputz guztiyan ibillita leku berririk arkitu eztubenian gelditzeko, bere kasketa charrakiñ alde egin du.

—¡Orra beaz!

—¿Eta nola dabill beorri?,

—Ni, orla orla, bada.

—Anbat gaiztuago.

—Motel samar nabill aspaldichu-ontan.

—¿Bai e?

—Jaten detanian eta jaten ezdetanian, sentitzen det emen alako marmarako bat, ¿bai aldaki beorrek nik zer sentitzen detan?

—Ori ez da ezer. Aize enbat....

—Korapillua bezela jartzen zaut eta....

—Korapillu ori askatzeko ez da ibiltzia baño gauza oberikan.

Eguzki ederra dago ta probechatu egiñ biar dira denbora abek.

—Bai, ederregiyak. Udaren erdiyan gaudela diruri. Ez dira komeni denbora abek sasoi ontarako.

—Egiya esaten du. Denbora erua da au.

—¡Aiñ erua!

—Bai, andre Kataliñ. Ikusten du Marchuaren erdiyan gaudela, eta kanpuak nola aurreratu diran. Bildur naiz bada, lengo urte batzubetan bezela, ez ote diran oraindiki izotz batzubek etorriko eta guztiya galduko.

—Jaungoikoak libra gaitzala.

—Orra bada. Oroituko da nola orain dirala sei urte onlako denbora zoragarriyakin loratu zan kanpo guztiya bere garaia baño len, eta zenbateraño zegoan alaiturikan jende guztiya, ala baserritar nola kaletar, esperantza gozuakin, beñere ezagutu etzan bilkera izango zalakuan, eta guztiyen gañez udare ta sagarrak eragiñez, etzala arbolik izango jaso lezakienik eman biar zituben frutubak; bañan jela ta kazkarabar aldi gogorcho batzubek sartu ziran, eta guztiya ondatu zan.

—Bai, bai; geronek ere kalte franko izan genduben.

—Alperrik da. Sasoi bakoitzak bere eguraldiya biar du kanpuentzat.

—¿Eta zer esaten dit personentzat? Bat arintzen da jantziyan, etortzen da illunabarra, eta berekin du kostadu miña.

—Bai; eta gero bat-batian, usterik guchiyenian mudatzen du charrera, eta orduban izaten dira istillubak.

—Denbora au bildurgarriya da, eta oraiñ obe litzake kanpua gozatzeko eudiya.

—Ori, ori.

EUDIYA.

—¡Au denbora likiškeriya!

—¡Petrala!

—¡Elementa elementaren gañian!

—Bai, eudi onekiñ, ez dago bat ezertarako.

—Ni beñepin, eche zuluana sartuta ez egotiatigatikan atera naiz.

- Denbora chachubonek bazter guztiyak usteldu biar ditu.
 —Ez dakit nik oraingoşian igeletan biyurtuko ote geran ere.
 —Alde guztiyetan zirripriştiñak besterik ez daude.
 —Bai; kalietan eziñ ibilli da putzu zulueta sartu gabe, eta erritik kanpora loya besterik ez dago.
 —*¡Sikiyera* beti zintzo eudiya egingo baluke! Bañan eudi chiau da okerrena. Ezerez bezela ari du ta sartzen da gorputzian zañeta-raño.
 —Umedade au bañan gauza charragorik ez da.
 —Egiya esaten du. Obia litzake elurra egingo balu.
 —Arrazoya du.

ELURRA.

- ¿Ikustendu zer denbora?
 —¡Berriz esan beza!
 —Auşenda elurra egiteko moduba!
 —Bai. ¡Ta norik esan garai ontan!
 —Ori, ori. ¡Ez gero guchi ere!
 —Okerrena da bart jela egin dubela gañian ta badakagu denbo-retako.
 —Eta ¿zeiñ ibiltzenda kalietan chirristatu eta ank-ezurra, edo, beso bat austeko zalantzan?
 —Denhora gogorra dago.
 —Eta tristia. Onela segitzen badu, amaika mişeri ikusiko dira.
 —Bai amabire. Jende eskasiyan bizi danentzat echeko negarra.
 —Nola nekazariyak ez dauden ez ibiltzeko ta ez lanerako, errukigarriyak dira.
 —Beste edozeiñ denborekiñ ez da orlako penik ikusten.
 —Ez. Denbora legorra egiñ ezker, alibiyo aundiya da guztiyentzat.
 —Bai, bai: aundiya.

LEGORRA.

- ¡Zér denbora!
 —¡Isillik bego! Ez naubela aitatuere.
 —Nere gorputza ez dakit nola dagon.
 —¡Aiñ aize motela dabill!
 —¡Zakarra!
 —¡Ustela!

- ¡Palsua!
 —Aize onek kanpo guztiyak igartu biar ditu.
 —Gorputzak bezela. Osasunentzat danik okerrena.
 —Ego aize edo ero aize onekiñ, buruko miñ bat badakat, ura alakua.
 —Nik bada oñetako biatz mutur guztiyak minberatubak, eta ja-teko gogorik ez.
 —Denbor-onek asko engañatzen du, ta danik errešena arrapatzen dira katarruak eta kostadukuak.
 —Denbor-au charra da, charra.
 —Bai, ta orla segitzen badu, zabaldukoda baztanga.
 —¡Eudiya egingo baluke!
 —¡Ori, ori! ¡Nunda preskur-ura!

.

Denborak izantendu
 makiña bat modu,
 batentzat charra dana
 bestiak ona du.
 Bañan kontentatzeko
 zailchuak gera gu,
 otz, bero, aiziakiñ,
 udara ta negu.

MARCELINO SOROA.

1.^{ko} SOMAKETAREN ASKANTZA:

ZULOA.

